



## ANGEL GANIVET-SANTA LUZIA IKASTETXEO HEZKUNTZA PROIEKTUA



### ANGEL GANIVET-SANTA LUZIA IKASTETXEO HEZKUNTZA PROIEKTUA

#### 1.- ANGEL GANIVET-STA LUCIA IKASTETXEA

Angel Ganivet-Sta Luzia ikastetxea Gasteizko Sta Luzia auzoan kokatuta dagoen eskola Publikoa da.

Ikastetxean Haur Hezkuntzako bi zikloak eta Lehen Hezkuntza eskaintzen ditugu eta etapa bakoitza eraikin batean ematen da. Haur Hezkuntza Federico Baraibar kalean dago eta Lehen Hezkuntza, Angel Ganivet, Jacinto Benavente kalean. Izan ere, ikastetxe hauek independenteak ziren, baina 1996 urtean fusionatu ziren.

Irakaskuntza euskaraz egiten da, D ereduko ikastetxea gara.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren agindupean gaude, beraz, ikastetxearen finantziak handik dator. Irakaskuntza doakoa da, baina familiek ekarpen ekonomiko bat egiten dute ikasleek beraiek sortutako gastu batzuk ordaindu ahal izateko: material suntsikorra eta ekintza osagarrietako garraioa ordaintzeko, gehienbat.

#### 2.- GURE NORTASUN EZAUGARRIAK

Gure ikastetxean honako ezaugarriak lehenesten ditugu:

Eskola PUBLIKOA gara eta ondorioz, doakoa eta denoi irekia. Hezkuntza-komunitate guztiaren partaidetza bultzatzen dugu.

Eskola LAIKOA gara. Gure kideen artean egon daitezkeen erlijioak errespetatzen ditugu, eta horiek ez dira inoiz diskriminazio iturri izango.

Eskola EUSKALDUNA gara. Euskara eta euskal kultura bultzatzen duen erakundea gara, ingurune eleanitz eta kulturantza integratzen dituen. Euskara ikasketa- hizkuntza izateaz gain, gure harremanetarako hizkuntza ere bada.

ESKOLA INKLUSIBOAREN aldeko planteamenduari jarraituz, AUKERA BERDINTASUNA bermatzen dugu. Honekin lotuta hezkidetzak eta kulturartekotasuna lantzen saiatuko gara.

BIZIKIDETZA bultzatzen dugu gure ikastetxean. Besteekiko harremanen bidez



## ANGEL GANIVET-SANTA LUZIA IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA



ikasten dugu elkarrekin bizitzen, elkar errespetatzen, norberaren ardura eta erantzukizuna jasotzen eta adiskidetasuna eta elkartasuna lantzen.

### 3.- HELBURUAK

Ganivet ikastetxean gure gain hartzen ditugu Eskola Publikoko Legearen (1/1993 LEGEA, otsailaren 19koa) helburu hauek:

- 1.- Ikasleen nortasuna garatu eta heziketa osatua bultzatu eta honako baloreak sustatu: gaitasun eta jokaera kritikoa, berdintasuna, partaidetza eta elkarlana.
- 2.- Hezkuntza-ingurune egokia eraiki ikasleen jatorrizko desberdintasunak berdintzeko eta ikasteko oztopoak gainditzeko.
- 3.- Ikasle guztiek, bi hizkuntza ofizialen ezagupen praktikoa izango dutela bermatu, euskararen erabilera bultzatuz eta normalkuntzari lagunduz.
- 4.- Euskal Herriko kultura-nortasuna mamitzen lagundu, ikasleak beren ingurunean errotzea bultzatuz.
- 5.- Ikasle guztien jatorrizko kulturak errespetatu eta onartu eta kulturarteko hezkuntza oinarriak jarraitu.
- 6.- Irakasleek, gurasoek eta irakasle ez diren langileek parte hartzeko duten eskubidea sustatu eta bermatu gure ikastetxearen kudeaketan.

### 4.- METODOLOGIAREN OINARRIAK

- ❖ Ikaslea hezkuntzaren ardatza da. Bera da bere heziketaren protagonista. Eskolak baliabide guztiak ikasleen eskura jarri behar ditu.
- ❖ Irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuak oinarrizko gaitasunak garatzera eraman behar ditu gure ikasleak, arloetako edukien bidez.
- ❖ Eskola inklusiboaren planteamenduaren barruan, gure eskolak lehenetsiko du ikasleen aniztasunari arreta ematea, ikasteko zailtasunak gertatu bezain laster hautematea eta tratatzea, ikasleei tutoretzak eta hezkuntza-orientazioa ematea eta familiekiko harremana zaintzea.



# ANGEL GANIVET-SANTA LUZIA IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA



- ❖ Irakaskuntzaren izaera hezitzaile eta orientatzailea denez, irakasle guztiak dira hezitzaileak. Batera eta modu koordinatuan esku hartu behar dute eta ikasleen heziketan ardura duten pertsonekin lankidetzan egingo dute, batik bat familiarekin.
- ❖ Irakasle onen lana beren ikasleak motibatzea, laguntzea eta orientatzea izango da. Hezkuntza prozesuan konfiantzazko giroa sortuko dugu elkarrekiko harremanetan, ekimena eta sormena garatzen dituen irakaskuntza aktiboa bultzatuz.

## 5.- ALDERDI OROKORRAK

### 5.1. HIZKUNTZA TRATAERA

Euskara da gure ikas-irakaskuntzaren hizkuntza nagusia, baina Oinarrizko Hezkuntzaren xederik garrantzitsuenetakoa denez ikasle eleanitzak lortzea, ingelesa, gaztelania eta euskara lantzen ditugu eskolan. Honez gain, ikasle guztien lehen hizkuntzak baloratzen ditugu.

Ikaste-prozesuan hizkuntzen erabilera lehenetsiko dugu. Hizkuntzak irakasteko komunikazio-ikuspegia izango da metodologiaren ardatza. Hitzunen eta hizkuntzen aldeko jarrerak sortzera bideratuko ditugu ikasleak.

### 5.2. EBALUAZIO-PROZESUA

Ikasleen gaitasunen ebaluazioa banakatua, jarraitua eta orokorra izango da, oinarrizko gaitasunak kontuan hartuta.

Ikasleek ikasitakoaz gain, irakasleek irakaskuntza-prozesua eta beraiek egindako lana ebaluatuko dugu ikasturte bukaeran, ebaluazio orokorreko emaitzak bildu, aldaketak proposatu eta erabakiak hartuz.

### 5.3. ANIZTASUNAREN TRATAERA

Aniztasuna bultzatu behar den balore bezala ulertzen dugu, taldeko aberastasun gisa ulertuta. Hots, norberaren egoera eta erreferentzia sozio-kultural zehatzetik abiatuz saiatuko gara ikasleen ahalmen eta trebetasunak garatzen ikaste-erritmo eta izate desberdinak kontuan izanda.

Aniztasunaren trataerako neurriek erantzun egin behar diete ikasleen hezkuntza-premiei, haien ikasteko interesa, motibazioa eta ahalmena aintzat hartuta, ingurune normalizatu eta inklusibo batean ikas dezaten.